



ebaluazio-txostena

plan estrategikoa **2013-2016**

Administrazio Kontseilua 2017-11-28

Edukia

3. Sarrera	3
4. 2013-2016 Plan Estrategikoaren laburpena	5
2.1 EITB, zerbitzu publikoa	5
2.2 Zortzi ildo estrategikoak	7
2.3 Eginkizuna, ikuspegia eta balioak	9
3. Testuinguruko faktore garrantzitsuenak	10
4. Balantzea eta betetze maila	15
4.1 Aurrekontu-esparrua betetzea	15
4.2 Plan Estrategikoko zortzi ildoei dagozkien helburuen % 70 betetzea	19
5. Zortzi ildo estrategikoen garapenaren emaitzak	21
5.1 Zerbitzu publikoaren eredia izatea	21
5.2 Informazioan eta gaurkotasun-gaietan liderrak izatea	26
5.3 Ikus-entzule euskaldunen kopurua igotzea	30
5.4 Konbergentzian erreferentzia izatea	34
5.5 Talde barnean ikuspegi komuna lantzea ("Gu").	37
5.6 Ikus-entzunezko sektore pribatuarekin lankidetzan aritzea ("Gu + Beste Gu").	41
5.7 Kudeaketa teknologikoan efizienteak izatea	45
5.8 Enpresa-iraunkortasunarekiko konpromisoa	48

1. Sarrera

Berrehun pertsona baino gehiagok, EITBko zein kanpoko langileek, toki desberdinetatik datozenek, hartu zuten parte hausnarketa estrategikoan, EITBren Plan Estrategikoa 2013-2016 sortzen laguntzeko, euskal gizarteko *Stakeholders* edo interesdunen lehentasunak biltze aldera.

Plan estrategiko orok **ibilbide-orri** bat ezartzen duenez, zuzendaritza-talde guztiek, egitasmo bati ekiten diotenean, finkatutako helburua eta proiektuak irauten duen bitartean kontuan hartzeko eta konpontzeko kontu guztiak kudeatu behar izaten dituzte.

Agiri honek amaiera ematen dio 2013-2016 bitartean garatutako Plan Estrategikoari, egindako lanaren berri emanez.

2016-2019 aldirako Programa Kontratua zikloaren bukaeran sinatzea izan da kudeaketa baldintzatu duen faktore nagusia. Krisialdiaren gogortasuna eta defizita txikiagotzeko euskal erakundeei eskatu zaizkien murrizketak direla medio, ezin izan da hainbat urtetarako, hain zuzen, 2013-2016 aldi osorako, aurrekontu nahikoa lortu, aurreko programa-kontratuei jarraipena egiteko beharko eta nahiko genukeen moduan.

2012an, eta are gehiago 2013an, doikuntza ekonomiko batzuk egin dira, hurrengo ekitaldiei ondorioak ekarri dizkienak. Ekonomia-egoera hirugarren atalean azaltzen da, *Balantzea eta betetze maila*. Plan Estrategikoak berak ezarri zuen 2013an programa-kontratu berri bat *egokitu* behar zitzaiola, finantzaketa eta zerbitzu publikoa ematea bermatzeko.

Arazo ekonomiko handieneko legegintzaldian, batez ere iraunkortasuna eta komunikazio taldearen etorkizuna lehenetsi beharko zituela planteatu zuen EITBren zuzendaritzak, besteak beste, enpresa onbideratua egoteko behar ziren erabakiak hartuz.

Edukiak kudeatzeko erabakia ere hartu zuen, eta horretarako, berriro orekatu zituen euskarri guztiak: telebista, irratia eta Internet, gizarte talde guztiak integratuko zituen etorkizunari begira. Albiste-zerbitzuak baliabide gehiagoz hornitzea erabaki garrantzitsua zen, eta oso emaitza gogobetekoa ekarri zuen: taldeak informazioaren arloko lider bihurtzea eta komunikazio-talde erreferente izaten jarraitzea.

Egun, aukera asko eta onak eskaintzen ditu EITBren etorkizunak, 2013an ez bezala. 2016-2019 Programa Kontratuak lehenago ahalmenetik kanpo zeuden proiektuei heltzeko aukera ematen du.

EITBri buruzko eztabaida sozial eta politikoa aukera ezin hobea da eredia berriz aztertu, etorriko dena irudikatu eta aldaketei ekiteko. Komunikazioaren sektorea aroz aldatzen ari da, eta bere etorkizuna zalantzarria baino aurretik jakin ezina da. Hori dela eta, une egokia da etortzeko berriz pentsatzeko eta horretarako

prestatzeko. Batez ere, malguak izateaz gain, prest egon behar dugu etengabe aldatuz doazen agertokietako protagonistak izateko. Hori guztia, balio-ekarpena egiteko, baita eduki erabilgarriak eta interesgarriak, euskal gizarteak nahi duen eran, eskaintzen dituen zerbitzu publikoa bermatzeko ere.

2. Plan Estrategikoaren laburpena

2.1. EITB, zerbitzu publikoa

EITB zerbitzu publikoa delako adierazpena funtsezkoa da. EITB ez da enpresa publikoa, publikoaren esanahia adjektibo gisa bakarrik ulertzen bada, behintzat. Ikus dezagun ibilbidea: Euskal gizarteak, **Eusko Legebiltzarreko ordezkarien bitartez**, EITB erakundea sortzea erabaki zuen, *“herritar euskaldunak informazio eta politikan esku hartzeko funtsezko tresna izan dadin, baita hezkuntza-sistemarekiko eta euskal kulturaren sustapen eta zabalkundearekiko oinarritzko lankidetzatresna ere, euskararen sustapena eta zabalkundea bereziki kontutan izanik eta, hori guztia, herritarren eskubide eta askatasunak behar bezala betetzeko euskarri eta oinarri”*.

Aldaketa garaiko bereizkuntzak “hastapenetara itzuli” behar dugula iradokitzen digu. **Euskal zerbitzu publikoa, euskal gizartearen zerbitzura**. Horretarako, behar-beharrezkoa da entzuteko jarrera lantzea eta gizarteak eskatzen duena berrinterpretatzea.

Gizarteak esandakoa entzun dugu eta honako ondorio hauek atera ditugu:

- Euskal Herriko komunikazio-mapan eragile nagusia den aldetik, komunikazio-erregulazioari dagokionez, **erreferentzia garbia** sortu eta aitzindaria izan dadila eskatzen zaio EITBri. Era berean, euskal komunikazio-esparruaren sorrera bultzatzea eta esparru hori gorpuzten duten giza, harreman eta lankidetzatresna egiturak gaurkotzen lagundu dezala eskatzen zaio.
- Zeregin eratzailerak daukanez, EITBri **euskararen normalizaziorako** bidean beste urrats bat eman dezala eskatzen zaio, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak eta beste eragile batzuek arlo horretan egindako berealdiko irakaskuntza- eta prestakuntza-lanaren ondorioz, gehienbat elebiduna den euskal gizarteari beste bultzada bat eskainiz, eta normalizazio prozesu hori herriaren modernizazioarekin uztar dezala, tradizioa osatzen duten elementuen gainetik.
- **Euskal kulturaren sustapenari** dagokionez, hedatzaile eta ikus-entzunezko leihoa izan dadila eskatzen zaio EITBri, baita belaunaldiz belaunaldi ondorengoetarako den guztia gorde dezala eta modernizazioa nahiz sortze-lan berriak bultzatzea ere.
- EITBri eskatzen zaio **gazteak eta haurrak babestu eta sustatu ditzala, eta erantzukizun** estrategikoa izan dezala balio, gizarte-eredu, portaera-arau eta mundura zabalik dauden kultur bereizgarriak erakusteko orduan.
- EITBri eskatzen zaio **harreman egonkorra** landu dezala euskararen gizarte-esparrua osatzen duten erakundeekin, eta haiekin batera proiektu estrategikoak garatu ditzala euskara eta euskal kultura sustatzearren.

- EITBri eskatzen zaio anitza izan dadila. **Gizarte kohesioa bultzatzea** dezala eskatzen zaio, aniztasuna errespetatuz euskal gizartearen aberasgarria den aldetik. “Zubia” da sinbolorik egokiena: EITBk zubiarena egin dezala desberdinen artean (hizkuntza dela, lurraldea dela, sentimendua edo ideologia direla, gizarte garapena dela, kultura dela...). Eta zubi horrek oinarri sendoak izan ditzala giza eskubideen defentsan, ildo editoriala errespetuan funtsatuta.
- EITBri informazioa ematean neutrala, egia, objektiboa eta inpartziala izan dadila eskatzen zaio; **profesionaltasun osoz eta inolako mendekotasunik gabe** eskaini ditzala albistegiak, gaurkotasun-saioak eta/edo eztabaida-saioak.
- Informazioaren gizartean gaudela aintzat hartuta, eitb.com euskarriak **euskal esparru digitala** eratzen lagundu dezala, eta bere ikus-entzunezko ondare garrantzitsua gizartearen, hezkuntza-munduaren, euskararen irakaskuntzaren, euskal diasporaren, turismoaren eta interesa izan dezaketen beste erakunde batzuen eskura jar dezala eskatzen zaio EITBri.
- EITBri eskatzen zaio eragilea izan dadila **bizi-ohitura osasungarriak** sustatzen eta droga-mendekotasunak nahiz adikzioek dakartzaten arriskuei buruz hezten. Era berean, **kontsumo arduratsuarekiko konpromisoa har dezala eskatzen zaio**.
- **Baliabide publikoak erabiltzen efizientea izan dadila** eskatzen zaio EITBri, **zuhertasunez** eta **kalitate ona** kontuan hartuz kudeatu ditzala, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak gizartearentzat aberasgarriak izan daitezzen. Horrela, EITB euskal industriaren eta bertako enpresen sustatzaile ekonomikoa izango da.
- Gainera, azken legegintzaldian zehar, hainbat erakundek eta iritzi publikoak gardentasuna eskatu dute; EITB, bere aldetik, onartu eta bere gain hartu du **kontuak emateko orduan, eredu izateko konpromisoa**.

Aurreko guztia aintzat hartuta, EITB bi helburu nagusi lortzen ahaleginduko da zerbitzu publikoaren eskaintzari dagokionez: **audientzia handitzea** eta erreferentzia izatea **gizarte-prestigioaren** ikuspegitik..

Audientzia handitzeaz batera, gizartearekin lotzeko helburua bete egiten da, hedabidearen nabarmentasuna finkatzen da eta, horren ondorioz, informazioa emateko eta gizarte-kohesioa ahalbidetzeko gaitasuna areagotzen da. Beste alde batetik, gizarte-prestigioa dela eta, gizartearen onespina ikusgarri egiten da.

Prestigioa sumatzen da eta aurreikusitako gizarte-eginkizuna betetzen ari dela egiaztatzen da. Arestian aipatutako bi helburuen artean, alegia, audientziaren eta gizarte-prestigioaren artean, izan behar den oreka kontuan hartuta, EITB behartuta dago bere proiektu oso-oso zerbitzu publiko gisa taxutzera. Adierazleak era objektiboan neurtu dira.

2.2. Zortzi ildo estrategikoak.

Plan Estrategikoak 8 ildo estrategikoak lehenesten ditu, EITB Taldeko elkarteen urteko kudeaketa-planetan garatuak izateko. Enpresaren jarduera plana urteko gestio planen bidez garatzen da. Enpresa berritu, aldatu, eraldatu eta iraunkor bihurtzeko proiektuarekin batera burutzen dira.

-I-

Zerbitzu publikoaren eredu izatea, ikus-entzuleen kopuru handia eta gizarte-prestigio ona bermatuz.

-II-

Informazioan eta gaurkotasun-gaietan liderrak. Horrek esan nahi du landutako edukiak erreferentziazkoak direla, eta EITBk gizarteari informazioa eskaintzen diola eta jarrera kritikoa sustatzen duela.

-III-

Euskarazko audientzia indartzea, euskararen gizarte-prestigioa eta erabilera sendotzeko. Horrek esan nahi du euskal komunikazio-gunea sortu behar dela eta horrek publiko berrietara iristeko eskaintza erakargarria landu behar duela. Gainera, euskarari lekua egin behar dio modu naturalean euskarri guztietan.

-IV-

Konbergentzian erreferentzia izatea. Horrek esan nahi du erakundearen kultura profesionala eta antolaketa berrerratu behar direla hedabidea multimedialako euskal komunikazio talde publiko bati eskatu ahal zaion potentzialtasun osora egokitzeko.

-V-

Talde barnean ikuspegi komuna lantzea ("Gu"). Horrek esan nahi du erakundearen proiektua komunikatu behar dela, urteko gestio-planak taxutu behar direla eta barruko egitura proiektu honen zerbitzura jarri behar dela. Era berean, esan nahi du beharrezko aldaketak egin behar direla araubidean berrikuntza-erronkei ekiteko.

-VI-

Ikus-entzunezko sektore pribatuarekin lankidetzan aritzea ("Gu+BesteGu"). Horrek esan nahi du sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren burutsua bideratu behar dela, euskal ikus-entzunezko sektorea aliatu estrategiko gisa garatu eta industria nahiz talentua sor ditzan, interes handiko formatuak eta edukiak ekoitiz.


-VII-

Efizienteak kudeaketa teknologikoan. Horrek esan nahi du EITBk oraingo eta etorkizuneko erabakiak hartzen dituela inbertsioen gaineko zuhurtasun-printzipioari jarraikiz, kostu eta errentagarritasunaren arteko emaitza bikaina bermatzearren.

-VIII-

Enpresa-jasangarritasunarekin konprometituak. Horrek esan nahi du EITBk oraingo eta etorkizuneko erabakiak hartzen dituela diru-sarrera eta gastuen finantza-orekaren gaineko erantzukizunari jarraikiz. Aurrekoaz gain, administrazioarekiko harreman berriak sustatzen ditu programa-kontratu berri baten esparruan. Bertan zehaztu beharko dira zerbitzu publikoaren nondik norakoak eta haren ezaugarriak, bai eta enpresaren tamaina eta finantza-idea ere.

EITBko zuzendaritza-taldeak *timing* delakoaren planifikazioa egin zuen 2013an, eta *adostutako irizpide baten* arabera aztertu zuen ildo estrategiko bakoitzaren garrantzia, *aldaketarako, transformaziorako eta iraunkortasunerako ekarpena* egiteko *xede-ikuspegitik*, % 100 zortzi ildoen artean honela banaturik:



2.3. Eginkizuna, ikuspegia eta balioak.

Eginkizuna

Zerbitzu publikoa **gara**.

Pertsonen alde eta **pertsonentzat** egiten dugu lan.
Horretarako, informazio, dibulgazio eta entretenimendu eskaintza erakargarria eta kalitate gorenekoa lantzen dugu,
eta **euskal kultura**, baita **euskararen** normalizazioa eta erabilera ere sustatzen ditugu.

2016ko ikuspegia

Euskal Herrian, **erreferentziatzko komunikazio-enpresa** izaten jarraituko dugu.
Izan ere, audientzian eta gizarte-prestigioan daukagun lidergoagatik **gara** ezagunak.
Erabateko efizientzia garatzea dugu helburu, **konbergentziaren** bitartez,
gure edukien **ugaritasunagatik** eta **inpaktuagatik** nabarmentzeko.
Gure hedabidea oso **parte-hartzailea** izatea nahi dugu,
edukietan **“gurea”** eta **“denena”** uztartuz,
eta eduki **arrakastatsuak** eskaini nahi ditugu **entretanimenduko** saioetan.

Balioak

Profesionalak Negozioaren giltzarriak ulertzen ditugu. Profesional zorrotzak, eraginkorrak eta bizkorrak gara. Hobekuntza eta berrikuntza bilatzen ditugu, gero eta emaitza hobekak erdiesteko eta sinesgarritasuna edukitzeko.

Aldaketarako irekiak Aldaketek aukerak ekartzen dituztela sinesten dugu. Badakigu horrelakoez baliatzen, sormena erabiliz geure burua zailentzen jartzeko, joerak antzemateko eta arriskatzeko gai baikara.

Arduratsuak Zer egingo dugun esaten dugu eta hori egiten dugu, hartutako konpromisoen arabera. Kudeatzen ditugun baliabide publikoak neurritasunez erabiltzeko konpromisoa hartu dugu. Kode deontologikoa errespetatuz eta emaitzak gardentasunez emanez garatzen dugu lanbidea.

Hurbilak Gure burua ezagutarazten dugu. Eskura gaude. Entzun egiten dugu. Gurekin harremanetan jartzen direnei kasu egiten diegu, arreta osoz. Hurbiltasuna eta harremana funtsezkoak dira gure marka-nortasunean.

Talde-espirtua Proiektua partekatzen dugu. Negozioen arteko sinergiak lortzen ditugu “EITB Taldea” are gehiago izateko. Aurrera egiteko elkarrikeretan aritzen gara, ekimena azpimarratuz. Lorpenak ospatzen ditugu.

3. Testuinguruko faktore garrantzitsu- enak

Plan estrategiko guztiek, hasieratik, aurrez ikusitako testuinguru-faktoreen multzo bat izaten dute, baina badaude beste faktore batzuk, agian aurreikusi ez direnak. Faktore guztiak, aurreikusitakoak zein aurreikusi ez direnak, kudeatu behar dira.

Agertutako bost faktore garrantzitsuenak aipatzen dira, baita horiek kudeatzeko modua ere.

1. Aurretik jakin ezin den atzeraldi ekonomikoaren bilakaera eta larritasuna.

Ekonomia-krisiaren ondorioak 2008ko udan hasi ziren nabaritzen, eta ordutik aurrera, krisialdiak erakundeetan duen eragina ikusi genuen. Izan ere, legegintzaldietan zehar luzatzen ari dela ikusi dugu. Krisiak eragin nabarmena izan zuen EITBn: IX. legegintzaldian (2009-2012) asko murriztu zen aurrekontua eta X. legegintzaldian (2012-2016) beste murrizketa batzuk egin ziren. 2009 eta 2013 bitarteko aldiaren %40 murriztu zen ustiapen-aurrekontua; ekipamendu eta ibilgetuaren inbertsioek, berriz, %80ko murrizketa izan dute.

Programa Kontratuaren negoziazioak atzeratzea krisialdiaren ondorioa zen. 2013-2016 aldirako Programa Kontratua izateak hasieran sortu zuen konfiantza desagertu egin zen, hazkunderik eza luzatzen hasi zenean. Horrekin batera, defizit publikoa murrizteko exigentziak agertu ziren, gizarte-politikak lehenetsi eta zerga-bilketa kolokan jarri zen bitartean. Programa Kontratua ez da sinatu legegintzaldiko azken urtea iritsi arte; 2016-2019 aldirakoa izango da.

2. Publizitate arloaren egoera eta duopolioa.

Publizitatean egindako inbertsioaren bilakaerak W letraren forma izan du; izan ere, publizitatean gehien inbertitu den ekitaldia 2007. urtea izan da (7.874 milioi euro). 2010ean, gorakada bat izan zuen inbertsioak, baina ez zen finkatu. 2012az geroztik, hazkunde bidean dago.

Estatuko gobernuaren erabakiak –2010eko urtarrilaren 1etik aurrera RTVE korporazioan publizitatea kentzeko– hiru ondorio izan zituen: izan ere, sendotu egin zuen telebistako publizitatearen merkatua, etorkizunean Mediaset eta Atresmediaren duopolioak kontrolatuko duena. Bi enpresa talde horien posizio menderatzailea indartu egin zen, gainera, alde batetik, duopolioak Cuatro (Prisa) eta LaSexta (Mediapro) xurgatu zituelako, eta bestetik, 2015ean, Lurreko Telebista Digitaleko emakida berriak banatu zirenean, 13 kanal lortu zituelako.

Izan ere, gaur egun, estatu mailan, duopolioak (Atresmedia eta Mediaset) agintzen du telebista-publizitatearen merkatuan. Egoera latza da merkatuan lehiatzen diren gainerako enpresentzat. EITB bezala finantzatzeko bide bikoitza baliatzen duten operadore publiko guztiek egindako adierazpen publikoan jakinarazi diete organo arautzaileei eta estatuko erakunde politikoei bi enpresa talde horiek, kontzentrazioaren helburua lortu ondoren, egitateen bidez eta Merkatu eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren kontrolik gabe, ezabatu egin dituztela merkatuak bete beharko lituzkeen funtsezko printzipioak: askatasuna eta benetako lehia.

Hain zuzen ere, 2016an, LTD osoaren % 57ko entzuleriarekin, 1.811 milioi irabazi dute publizitateari esker, hau da, telebista osoak irabazitakoaren % 85,4, edo % 95, estatu mailan eta irekian ikus daitekeen LTDa bakarrik kontuan hartzen bada. Gainera, talde biek publizitate-inbertsioaren bolumen berriak metatzeko estrategia dute, hirugarren kanalekiko hitzarmenen bidez, paketeak (ordainpekoak eta/edo modu irekian) txertatzeko, eta horrela, publizitatearen % 100 kontrolatzea lortzeko. Egoera kezagarria da, oso larria, bai operadoreen bai iragarleen ikuspuntutik.

Salatu behar da legedian dagoen hutsuneak eta botere publikoek duopolioa osatzen duten taldeen exigentzien aurrean (beren interesen aldeko araudia izateko) amore emateak eragindako narriadura. Gainera, Europako estatu nagusietan ez bezala, telebista-operadoreak arautzen, baldintzak jartzen eta legea zein merkatuko printzipioak betetzea kontrolatzen dituen organo independente eraginkorrik eza lortu du duopolioak. Estatuko legegileei dagokie eragile guztiak elkarrekin bizitzeko aukera emango duen merkatua berriz eraikitzeko ardura,

erabiltzaile, kontsumitzaile, hedabide eta iragarleen onerako den lehia gordezko, eta horrela, sektore publiko eta pribatuaren arteko oreka berreskuratzen laguntzeko.

3. Dibidendu digitalaren garapenaren ondorioak.

Lehenengo dibidendu digitala 2014 eta 2015ean zehar garatu zen. Espainiako gobernuak garatu duen Europako zuzentarau bat oinarri hartuta, telebista-operadoreek 800 MHz-eko banda libre utzi behar izan zuten. Izan ere, banda hori telefonia-operadoreen esku utzi zen 4G teknologia hedatzeko helburuz.

Dibidendu digitalaren plangintzak Lurreko Telebista Digitaleko kanaletako programen banaketa berria ekarri zion ETBri, Bizkaian eta Gipuzkoan, telebista-eskaintza osorako.

ETB Bizkaian 61. kanaletik 25. kanalera eta Gipuzkoan 60. kanaletik 50. kanalera eramatea agindu zuen ministerioak. EITBrentzat banaketa berria bereziki kaltegarria zela adierazi zuen EITBk, aipatutako 25. eta 50. kanalak aurretik erabiltzen ez zirelako; ETBri ez bezala, gainerako operadoreei antenaz zeuden kanalak esleitu zitzaizkien, eta hori oso onuragarria zen eurentzat, ETBk antena instalatzailearen zerbitzua kontratatu eta ordaindu behar izan zuelako.

Gauza bera 2020. urtea iritsi baino lehen gerta daiteke. Bigarren dibidendu digitala delakoaren ondorioz, 50. eta 58. kanalak, hain zuzen, Gipuzkoako eta Arabako ETB kanalak, frekuentzia txikiagoko kanal batzuetara pasatuko dira, 694 eta 790 MHz bitarteko frekuentziak telefonia mugikorrek erabiliko dituelako, 5G sarea zabaltzeko.

Horrek ekarriko duen arazo larrien seinale, Eusko Legebiltzarrak 2015-03-26ko osoko bilkuran legez besteko proposamen bat onetsi zuen, eta horren bidez, eskatu zion Espainiako Gobernuari *simulcast* egiteko epa luzatzeko, seinalea itzali ondoren, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat etxe ETB sintonizatze aukerarik gabe gera ez zitezen. *Simulcast* egiteko epea ez zen luzatu.

EITBk jasandako kaltea oso handia zen eta etxeetako antenak bersintonizatze orduan gauzatu zen. Izan ere, ETB sintonizatzeoko antena kolektiboetarako ekipamendu berriak erosi behar zirenez, instalazioak atzeratu egin ziren, eta ondorioz, hainbat etxetan, bersintonizazioa egiteko orduan, HD seinalea zuten beste operadoreek hartu zituzten lehenengo posizioak urrutiko agintean, eta hori garrantzitsua izan zen kontsumitzeko jarraibideak ezartzeko.

4. EITB eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, ETBko kanalak LTD-ren bidez ikusteko.

Nafarroan, ETBk hogeitau urte baino gehiago emisio analogikorako erabiltzen zuen kanal edo espazio irrati-elektrikoa erabiltzen hasi zen LTDra. Egoera salatu zenean, Ministerioak berehala itzaltzeko agindua eman zuen, eta 2016ko maiatzaren 5ean itzali egin zen.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzaren protokolo bat sinatu zuten 2016ko maiatzaren 10ean, besteak beste, ETB Nafarroan emititzeko bidea ematen zuena. Ondoren, 2016ko uztailaren 15ean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, "EITB Nafarroan hartzeko hitzarmena" sinatu zen, autonomia mailako eta tokiko *multiplex*-etan lehendik dauden kanal libreak ETB1, ETB2 eta ETB3ren emisio digitalerako erabiltzeko asmoz, aurretik horretarako behar diren foru-arauak emanaz. Emisio digitala 2016ko irailaren 22an hasi zen Nafarroan.

5. Langile kopuruari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak baimendutako muga ez gainditzeko hartu diren neurriak.

Ekonomia-krisia dela eta, eta zergen bidezko diru-sarrerak murriztu direnez, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Ikuskatzaileak ehun bat merkataritza-profesional *laboralitzera* behartu du taldea. EITB Taldeko sozietateetan sartu dira, kontratu mugagabe ez-finkoa duten langile gisa. Era berean, irrati- eta telebista-programetan noizbehinka parte hartzen duten eta egindako deialdien kopuruaren arabera hilean behin faktura egiten duten kolaboratzaileak eta tertuliakideak ikuskatzen ari dira, helburu bera lortzeko.

Komunikazioko profesional garrantzitsuenak, enpresako langileak ez badira ere hedabidearen *star system* osatzen dutenak, lan-ikuskatzaileak emandako ebazpenen bidez, "artista" delako lan-modalitatea izatetik kontratu mugagabe ez-finkoa duten langileak izatera pasatu dira.

Behin-behineko langileen (bitartekoen zein muga-eguna duen obra egiteko lan-kontratua dutenen langileen) lan-kontratuak amaitu ondoren lan-estatusa epaitegietara eraman zen eta epaileak kontratu mugagabe ez-finkoak onartzeko behar zirela erabaki zuen.

Gainera, *Media for future* (M4F) partaidetzako sozietatea desegin ondoren, hogeitau langile baino gehiago EITBNETera pasatu dira, lan-kontratu mugagabe ez-finkoarekin.

Zuzendaritzak laboralizazio osoa kudeatu eta bere gain hartu zuen eta neurriak martxan jarri zituen Eusko Jaurlaritzak aurrekontuei buruzko legeetan ezarritako norabidea ez galtzeko, langile kopuruaren eta soldata-masaren gehieneko mugari dagokionez. Eusko Irratian Administrazio Kontseiluak 2014-04-23an hartutako erabakia ezarri da. Ondorioz, kontratu mugagabe ez finkoa duten langileen kopurua murriztu egin da, eta, enplegu-deialdi publikoaren bidez, enpleguaren erregulazio kolektiboko espedientearen bidezko prozedura-sistema erabiliz lanpostuak amortizatu dira. Halaber, enplegu publikoari eusteko neurriak hartu dira.

Eusko Irratian hartutako neurriak zuzenbidearen arabera egokitu dira. Horrela ezarri dute epai judizial irmoek. 2016. ekitaldian, batez besteko langile kopuruak ez du gainditu Eusko Legebiltzarrak onartutako aurrekontu-legean ezarritako muga. Bat-bateko kostuak murriztutako soldata-masa kontsolidatuz aurreztuarekin orekatu dira. Neurri horiek funtsezkoak eta ezinbestekoak izan dira, EITB Taldearen iraunkortasuna eta prozesuen efizientzia lortzeko.

4. Plan Estrategikoaren balantzea eta betetze maila

4.1. Aurrekontu-esparrua betetzea

EITB Taldearen aurrekontu bateratuaren garapena hiru taularen bidez adierazi da:

- I. Ustiatzeko aurrekontua
- II. Ibilgetuen inbertsio-aurrekontua
- III. Europako zineman eta obretan inbertitzeko aurrekontua

Ekonomia-datuak biltzen dituzten tauletan hamar urte aztertu dira, 2010etik 2019ra.

Denbora-esparru hori Plan Estrategikoaren aldiari dagokio (2013-2016); horri gehitu behar zaizkio aurreko hiru ekitaldiak (2010-2012) eta ondorengo hiru ekitaldiak (2017-2019).


Aurrekontuari dagokionez, 2010 eta 2016 bitarteko aldiak benetako zenbatekoak jasotzen ditu, ekitaldia amaitu ondorengoak. 2017-2019 aldiko zenbakiak zenbatespen zuzenak dira, Programa Kontratuan adostutako finantzaketa hartzen baitute oinarri.

Denboran zehar hain luzea izan den azterketan sakondu nahi izanez gero, inflazio faktorea hartu behar da kontuan, euro konstanteetan dauden zenbateko nominalak homogeneizatu direnez, diruak une bakoitzean izan duen erosahalmena kalkulatzeko.

4.1.1. EITB Taldearen ustiaketa-aurrekontu kontsolidatua

EITB Taldearen ustiapen-aurrekontu bateratuaren bilakaera.

Miloi eurotan.



Azalpena/Balorazioa


- ✓ EITB Taldearen ustiapen-aurrekontua, Plan Estrategikoa ebaluatzeko aldiari dagokiona (2013-2016), EITBren bigarren hamarkadako (pasa den mendeko 90eko hamarkadako) zenbakiei dagokie. 2000tik 2010era, aurrekontua 140,6 milioi euro (2000) eta 172,5 milioi euro (2009) bitartekoa izan da.
- ✓ Aurrekontuek 2012an (34 milioi euro gutxiago 2009tik aurrera) eta 2013an (beste 15 milioi euro gutxiago) izan dute beherapen handienak, eta 2013-2016 Plan Estrategikoari dagokion aldian beheranzko joerarekin egonkortu dira.
- ✓ Ekonomia-krisia, defizit publikoaren gaineko zorrotasuna eta BPGd-ak nahiz zergetatik eratorritako diru-sarrerek gora egitea bermatzeko zailtasunak direla medio, EITBren zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzak 2016. urtera arte ez zituzten hasi urte anitzeko programa-kontratuari buruzko negoziazioak. Sinatutako Programa Kontratuak ez ditu berreskuratu 2012. urtearen aurreko posizioak, aurrekontuari dagokionez.
- ✓ Aurrekontuaren egoerak eragin garrantzitsua du baliabideetan eta programen ordu bakoitzaren kostuan.

- ✓ Aldia zorrotz kudeatu da. Ekitaldi guztien bukaeran, 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoa barne, diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka lortu da. Defizit eta banku-zorrik gabe.

4.1.2. EITB Taldearen ibilgetuaren inbertsio-aurrekontua

Teknologia eta egoitzak berritzeko inbertsio-aurrekontuaren bilakaera.

Miloi eurotan.



Azalpena/Balorazioa


- ✓ Ibilgetua 40 milioi euro ingurukoa denez, berritzeko beharra batez besteko hamar urteko amortizazioarekin zenbatetsita, behar den inbertsioa 4 milioi euro/urte da, batez beste.
- ✓ Inbertsioei 2011ra arte eutsi zaie, baina 2013an gelditu egin da Inbertsio Planaren garapena; izan ere, ez da inbertsio berririk egin, lehenago egindakoei baino ez zaie eutsi, produktu zaharkituak eta katalogotik kendutakoak ordezkatzeko.
- ✓ Hasieran aurreikusitako inbertsioek, Plan Estrategikoaren aldian zehar proposatu direnek, bereizmen handiko ekoizpen-katean, ikus-entzunezko produktiko hardware eta software-a berritzean eta instalazioak egokitzean dute era-

gina. Aurrekontu-murrizketen ondorioz, Inbertsio Plana berriz egokitu behar izan da aurrekontu-esparruaren arabera; gastuak lehenesteko irizpideak ere doitu dira.

4.1.3. Europako zineman eta obretan inbertitzeko aurrekontua.

Europako zineman eta obretan inbertitzeko aurrekontuaren bilakaera, ikus-entzunezko sektore independentearekiko konpromisoa betetzeko.

Milioi eurotan.



Azalpena/Balorazioa

- ✓ EITBk behar bezala bete ditu ikus-entzunezko sektore independentearekiko konpromisoak, Europako zinema eta obrak finantzatzeari dagokionez.
- ✓ Operadore orori aplikatzen zaion konpromisoa denez, EITBren emaitzak bereziki azpimarratu behar dira, Merkatu eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren azken txostenen arabera, horiek bakarrik autonomia-erkidegoetako telebista guztiek egindako ekarpenen ia-ia % 40 adierazten dutelako.
- ✓ EITBn aurkeztutako proiektuen gidoiak ebaluatzeko metodologia berraztertu ondoren, emaitzak nabarmen hobetzea lortu da: sari asko lortu dituzten hainbat film (Zortzi euskal abizen, Loreak, Lasa eta Zabala eta abar), salmentetan arrakasta izan duten beste hainbeste eta urteko 70etik gora zinema-jaialdietan.


4.2. Plan Estrategikoko zortzi ildoetarako dagozkien helburuak betetzea.

Plan Estrategikoko helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak biltzen ditu. Horiek neurtea zerbait konplexua izaten da beti.


Plan Estrategikoko aldizkako jarraipena izan du. Banan-banan aztertu dira zortzi ildo estrategikoko eta beren arrazoiak edo zergatiak azalduta, adierazleak zein abiatutako proiektuen garapen maila ebaluatu da.

4.2.1. Zortzi ildo estrategikoko helburuak betetzeko maila

2016ko abenduan azken ebaluazioa burutu zen eta zuzendaritza taldearekin Plan Estrategikoko betetzearen ebaluazio orokorra zehaztu zen.



Txosten honen azken zatiak zortzi ildo estrategikoen jarraipena jasotzen du. Grafikoak lortutako adostasuna adierazten du, ildo estrategiko bakoitzeko helburuak betetzeari loturiko ehunekoan.



Ilde estrategiko bakoitzaren garrantzia eta betetze maila aztertuta, helburuen garapena kontuan hartuta, **emaitza oso ona –% 70 inguru–** lortu da.

5. Zortzi lerro estrategikoen garapena

5.1 ZERBITZU PUBLIKOAREN EREDUA

Norantza-ikuspegi luzea

EITBren eskaintza gainerako hedabideetatik bereizten da lehiakortasun handiko testuinguru mediatiko batean zerbitzu publikoaren izaera duelako.

EITBren eginkizuna eta hedabidearen ezaugarri bereziak Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeko Legean oinarritzen dira. EITBren bidezkotasuna honako hauetan datza: euskal gizartearen berezko edukiak eskaintzen ditu, euskaraz bizitza ahalbidetzen du, hurbilekoa azpimarratzen du eta edukien ikuspegi propioa lantzen du, gizarte-kohesioa bultzatzen du eta informazioa jaso zein parte hartzeko eskubidea garatzeko tresna da. Horrek esan nahi du:

- Eginkizuna betetzeko, telebista, irradi eta Interneteko euskarrien bitartez, EITBren eskaintzak honelakoa izan behar du:
 - *Gehiengoarena:* Biztanle guztientzat, multimedia-edukiak eskaintzen dituen.
 - *Orotarikoa:* programazio anitza eta orekatua eskaini behar du, informazio, kultur, hezkuntza eta entretenimenduaren beharriari erantzuteko. Nitxo-ikusleentzako edukiak ere landu behar ditu.
 - *Jasangarria:* finantzabide nahikoa izan behar du enpresa-kostuari aurre egiteko, aurrekontu publikoak, publizitate-sarrerak eta salmentak baliatuz.
 - *Arduratsua:* ereduzko kudeaketa izan behar du eta gardentasun osoz jardun behar du gobernu-organo eta gizartearen aurrean, azkenari baliabide publikoen inbertsioaren araberako balioa emateko helburuz.
- EITBk edukien eskaintza taxutu behar du gehiengoaren nahiz nitxo-ikusleen interesak aintzat hartuta.

- EITBk saiatu behar du euskarazko edukien eskaintza aberasten; izan ere, kontuan hartu behar du gizarteak berak urrats garrantzitsuak egin dituela, euskararen jakintza eta erabilerari dagokienez.
- EITBk berebiziko ahalegina egin behar du haur eta gazteentzako eskaintzan eta gaikako eskaintza berezia eskuetaratu behar die. Era berean, gogoeta eta eztabaida sortzeko guneak eratu behar ditu, ingelesezko saioak nola txertatu hausnartzeko eta, horrela, euskal gizartearen elkarriketarako gaitasuna eta unibertsaltasuna sustatzeko.
- EITBk telebista, irrati eta Interneteko edukiak garatu behar ditu, sormena eta gizarte-kohesioa errazten duten balioen esparrua orekatzeko. Funtsezko balioak honako hauek dira:
 - Demokrazia eta giza eskubideak defendatzea.
 - Berdintasun-printzipioa, pluralismo politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta hizkuntzako errespetatzea.
 - Bizikidetasuna eta bakea.
 - Elkartasuna eta garapen soziala.
 - Ingurumenarekiko errespetua eta horren zaintza.
 - Pertsonen duintasuna, izena eta fama errespetatzea.
 - Prestakuntza, esfortzua eta hobetzeko nahia.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

Erronka estrategikoa zerbitzu publikoaren eginkizunaren betetze-maila bermatzeko ebaluazio-tresnak sistematizatzean datza.

Adierazleen hiru multzo ezarri dira; horien bidez, helburuk betetzeko maila oso altua dela ikus daiteke.

a) Zerbitzu publikoaren helburuak betetzea

	Helburua	Emaidzak		
	2014-2016	2013	2014	2016
Zerbitzu publikoaren ezaugarri nagusien inguruan hartutako konpromisoen betetze maila. Programa Kontratuaren jarraipen-batzordearen balorazioa (bete diren adierazleen %)	Programa Kontratuaren jarraipen-batzordearen balorazioa.	% 73	% 71	% 95

Badago urteko ebaluazio-txosten bat, Programa Kontratuan hartutako konpromisoak betetzearen inguruan. Azken Programa Kontratua, indarrean dagoena, 2016-2020 aldiari dagokio. Aurrekoa 2012ko Kontratua da, urte batekoa, erakundeek arazoak zituztelako zerga-bilketaren emaitzak kalkulatzeko eta atzeraldi ekonomikoaren iraupena aurreikusteko.

Programa Kontratuak EITBk garatu behar dituen konpromisoak ezartzen ditu. Urteko hainbat txostenak modu sinesgarrian egiaztatzen dute helburuak behar bezala bete direla.

Kudeatu duen organoa batzorde mistoa izan da, EITBren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ordezkariak osatua.

b) Audientzia-adierazleen betetze maila:

	Helburua	Emaidzak		
	2014-2016	2014	2015	2016
<i>Audientziari</i> dagozkion adierazle gehienengatik hartutako konpromisoen betetze-maila:				
▪ Audientzia urteko, ETB osokoa (Kantar Media)	1.000.000 (P-K 2016); 1.350.000	1.362.000	1.201.000	1.109.000
▪ Irratiko audientzia, Irrati osokoa (CIES)	400.000 (P-K 2016); 420.000	417.000	421.000	405.000
▪ EITB.EUS-en banakako erabiltzaileak/hilabete (OJD)	1.900.000 (P-K 2016); 1.100.000	1.890.000	1.979.000	2.103.751

Audientzia-adierazleak erreferentziako programa-kontratuaren ezarritako helburretan oinarritzen dira: 2012ko kontratua eta 2016-2020 aldirako Programa Kontratua.

c) Gizarte-prestigioaren adierazleen betetze maila:

Plan estrategikoarekin bat, gizarte-prestigioaren adierazleak ezarri dira, gizarte-prestigioaren ezaugarriei buruzko berariazko inkestaren bidez neurtzen direnak. Inkesta euskal gizarte osoari egin zaio.

[EAEko 1.000 biztanlez osatutako lagina, lurralde historikoa ber biztanleen kopuruaren arabera haztatuta, Em=+ % 3,10, fidagarritasun maila: % 95, p=q=0'5, azken datuetan. Enpresa demoskopikoa: Gizaker. 3 neurketa: 2013, 2014 eta 2016an]

(0-10 puntuko adierazlea)	Helburua	Emaitzak		
	2014-2016	2013	2014	2016
<i>Gizarte-prestigioari</i> lotutako adierazle kualitatiboen inguruan hartutako konpromisoen betetze-maila:	EITB komunikazio talde liderren artean.			
▪ Telebisten rankinga, ETB1/ETB2-ren posizioa, “sinesgarritasunari” dagokionez		ETB2 1. ETB1 3.	ETB2 1. ETB1 3.	ETB2 1. ETB1 3.
▪ Telebisten rankinga, ETB1/ETB2-ren posizioa, “objektibotasunari” dagokionez		ETB2 1. ETB1 3.	ETB2 1. ETB1 3.	ETB2 1. ETB1 3.
▪ Telebisten rankinga, ETB1/ETB2-ren posizioa, “pluraltasunari” dagokionez		ETB2 1. ETB1 3.	ETB2 1. ETB1 5.	ETB2 1. ETB1 4.
▪ Irratien rankinga, EITB Irratiaren posizioa, “sinesgarritasunari” dagokionez		EI 2. RE 2.	EI 2. RE 2.	EI 2. RE 3.
▪ Irratien rankinga, EITB Irratiaren posizioa, “objektibotasunari” dagokionez		EI 2. RE 2.	EI 2. RE 2.	EI 1. RE 3.
▪ Irratien rankinga, EITB Irratiaren posizioa, “pluraltasunari” dagokionez		EI 2. RE 3.	EI 2. RE 3.	EI 2. RE 3.
▪ EITB.EUS webgunearen balorazio orokorra		7,5	7,5	7,2
▪ EITB.EUS webguneko informazioaren balorazioa	7,5	7,6	7,3	

Emaitzek egiaztatu dutenez, EITBren kanal desberdinek prestigio ona dutela, kanal guztien –pribatu zein publikoen– eskaintza osoa kontuan hartuta.

Aldagai horiek oso aipagarriak dira, EITBren eskaintza ebaluatzea, Plan Estrategikoak zein Programa Kontratuak berak jasotzen dutenari jarraikiz, audientziaren eta gizarte-prestigioaren arteko orekari dagokiolako.

Proiektu estrategikoen garapena

EITBk plan estrategikoa garatzen du zerbitzu publikoaren eginkizunari hertsiki lotuta.

Lehentasun estrategikoen helbururik behinenak zerbitzu publikoaren edukiak garatzea eta EITBren enpresa-jasangarritasuna ahalbidetzea dira, euskal sektore publikoaren barruan.

1. proiektua. Zerbitzu publikoaren ezaugarriak berrikusi eta zehaztea oraingo legegintzaldiari begira. Programa Kontratu berriaren negoziazioaren esparruan garatzea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Behar bezala BETE da. Programa Kontratuak zerbitzu publikoaren ezaugarriak zehaztu eta definitzen ditu. Gaur egungo euskal gizartearentzat baliagarriak diren zerbitzu publikoaren ezaugarriei buruzko hausnarketa egitea, horiek berriz aztertzea, eguneratzea eta 2016-2020 aldirako konpromisoak hartzea garrantzitsua da erakundearen ikuspuntutik.

2016-2020 aldirako Programa Kontratuak 11 lehentasun ezartzen ditu, eta horiek oinarri hartuta, lortu behar den aurrerakuntza garatzen du. Era berean, garapena ebaluatzeko adierazle multzoa zehazten du. Aurrekoekin konparatuta, nahiko desberdina da Programa Kontratu hori, hortaz, garatu ahal izateko EITBk egokitu beharko du.

Administrazio Kontseiluak eta Legebiltzarrean eraturako EITBren Kontrolerako Batzordeak aztertu zuten Programa Kontratuak. Gobernu Kontseiluak onetsita, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak eta EITBren zuzendari nagusiak sinatu zuten, 2016-02-24an.

2. proiektua. Prestigio soziala ebaluatzeko prozedura bat ezartzea. Prozedura garatzea eta EITBren kudeaketa-sistemako adierazle multzoan txertatzea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Behar bezala BETE da. Gizarte-prestigioaren ebaluazioak, inkesta kuantitatiboen bitartez, EITBren irudiarri eta jendearren artean duen prestigioari buruzko informazioa eskaintzen du. Audientziari buruzko datuak marka eta produktuaren kalitatearen adierazleekin osatzen ditu, Komunikazio Talde publikoak euskal gizartean duen eraginari buruzko txosten osatua eskainiz.

5.2 INFORMAZIOAN ETA GAURKOTASUN-GAIETAN LIDERRAK IZATEA

Norantza-ikuspegi luzea

*Informazioa eskuratzeko eskubidea pertso-
nen funtsezko eskubidea da eta hedabideen bitartez gauzatzen da. Horren on-
dorioz, EITBren zerbitzu publikoaren eginkizunaren oinarritzko zeregina kalita-
tezko informazioa eskaintzea da.*

*EITB Taldearen erronka nagusia da komunikazio talde liderra izatea, albistegi
eta gaurkotasun-gaiei buruzko saioetan.*

Horrek esan nahi du:

- EITB Taldearen Kontseilu Editorialak zuzendaritza editorial profesional eta independentea sustatzen duela; taldearen informazio-agenda betea eta interes handikoa garatzen du eta informazio-iturririk onenak baliatzen dituela.
- Informazio oso-osoa eta irekia eskaintzeari kalterik egin gabe, EITBk Europar Batasuneko esparru ekonomiko, sozial eta politikoaren erreferentziaren alde egiten duela.
- EITBk kazetaritza onaren abiaburuak sustatzen dituela: informazioa iritzitik bereizten du eta egitasuna, informazioaren oreka, inpartzialtasuna, neutraltasuna, independentzia eta sinesgarritasuna bezalako printzipioak betetzen ditu. Era berean, informazio osoa eta testuinguru zehatz baten barrukoa sustatuko da.
- EITBk, kalitate goreneko informazio-agentzia denez, informazioa ekoizteko baliabide guztiak erabiltzen dituela eta prest dagoela euskal komunikabideen sektorearekin lankidetzan aritzeko proposamenak lantzeko.
- EITBk edukiak antenan jartzea zaintzen du, sinesgarritasuna eta estilo propioa bermatzeko. Komunikazio-gaitasuna, ezagutza eta balio erantsia izateagatik hautatutako pertsonekin iritzi-eztabaidak bultzatuko ditu.
- EITBk azterketa-kazetaritzako esparruak sustatzen ditu, egitate, inguruabar eta balizko ondorioak aztertzeko. Bestetik, intereseko gaiei buruzko albistegiak sustatuko ditu, eguneroko albistegietatik at.
- *Breaking news* EITB.EUS webgunearen bidez emango direla batez ere, baita buletinetan eta irratiko informazio-tarteetan ere; ezohiko egoeretan, telebistako albistegi berezietan ere agertuko dira.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

Erronka estrategikoa da Euskadin liderra den multimedialako komunikazio taldearen mailari eustea eta Euskadiko informazio-erreferentzia garrantzitsuena izatea. Adierazle nagusiak

	Helburua	Emaitzak		
	2014-2016	2014	2015	2016
EITB Taldearen lidergo-posizioa EAEn: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Telebista orotarikoko informazio-saioen (eztabaida, elkarrizketa, erreportaje eta albistegi berezien) orduak urteko. ▪ Irrati orotarikoko informazio-saioen (eztabaida, elkarrizketa, erreportaje eta albistegi berezien) orduak urteko. 	1. eskaintza (Orotariko telebistaren orduak gutzira)	5.433 5.396	5.018 5.396	4.988 5.171
Audientzien lidergoa honako hauetan: telebista, irrati edo Interneteko kanal batzuetan. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazio-dukietan, Teleberri astelehenetik igandera ▪ Informazio-irratia, goizez, astelehenetik igandera 7:00/10:00 	Gutxienez, bi kanal edo euskarritan, lehen edo bigarren posizioan	1. liderra 1. liderra	1. liderra 1. liderra	1. liderra 1. liderra
Lidergoa balorazio kualitatiboari dagokionez, gainerako komunikazio taldeen aldean. <ul style="list-style-type: none"> ▪ EITBren informazio-zerbitzuen eta gaurkotasun-dukien profesionaltasunari dagokionez. 	Komunikazio-talde liderra.	1. ETB2 2. RE	1. ETB2 2. RE	1. ETB2 2. RE

Aldagai horiek oso aipagarriak dira, egiaztatu baita EITB Taldearen informazio-eskaintzaren nagusitasuna. Horrela, taldeak bete ditu informazioan eta gaurkotasun-gaietan liderra izateari buruzko ildo estrategikoko helburuak.

Proiektu estrategikoen garapena

EITBk kazetari talde handia du, kazetari orotarikoak zein espezializatuak batzen dituena, eredia ahalik eta eraginkorra izatea bermatzeko.

Erredakzioaren egitura hiru egoitzatan banatzen da. Horretaz gain, EITBren ordezkariak Iruñean, Baionan eta Madrilen daude, baita berriemaile postuak ere, munduko informazio-gune nagusietan; horri guztiari esker, edukiak bere ikuspegitik lantzeko gaitasuna du EITBk.

1. proiektua. Informazioaren arloan, erreferentziazko hedabidea izatea eta berezko komunikazio-esparrua lortzea, informazio nahikoa jasotzen duen eta izaera kritikoa daukan euskal iritzi publikoa eratzearen. Kontseilu Editoriala eratzea, kazetaritza onaren printzipioak eta *Erredakzio estatutua* aintzat hartuta, egunero-egunero gure informazio-agenda lantzeko, herritarrentzako erreferentziazko edukietan oinarrituta, kalitate handiko informazioa eskatzen baitigute.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Kontseilu Editoriala eratu da, egunero EITB Taldeko Albiste Zerbitzuen informazio-agenda prestatzen duena.

Albiste-zerrendan sei ataleko berriak agertzen dira: politika, nazioarteko gaiak, gizartea, kultura, ekonomia, kirolak eta meteorologia. Albistegi bakoitzean, estilo-irizpideak eta hartzaile mota aintzat hartuta, edukiak orekatu, antolatu eta sortzen dira, programa buruaren zuzendaritzapean.

Albistegi-esparru bakoitzak bere nortasuna du; erreferentziazko aurkezle/komunikatzaileek zuzentzen dute. Programa bakoitzak bere narrazio- eta estetika-egitura du, merkatuko beste hedabideetatik bereizten dena.

Komunikazio-esparrua sustatzeari dagokionez, Euskadi/Euskal Herria erreferentziak hartzen ditu kontuan. Estatuarekin, Europarekin eta nazioartearekin loturiko gaiak euskal gizartearen ikuspuntutik jorratzen dira.

EITB Focus ekimena abian jarri da, ikerketa demoskopikoaren bitartez, herritarrek interes handieneko kontuei buruz (kontu politiko eta/edo sozialei buruz, alegia) duten iritzia aztertzeko. Urtean zehar, jardunaldi tematikoak ere programatu dira, korporazio-multimedia, gaurkotasunarekin lotutako interes orokorreko gaiak jorratzeko.

Telebistako eta irratiko albistegiek harmen ona eta onarpen maila ona izaten dituzte ikus-entzuleen artean, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan. EITBren hiru euskarriak kontuan hartuta, telebista, irratia eta Internet, izaera publikoko komunikazio talde honek, alde handiz gainera, informazioa lortzeko ba-

liabide gehien eta ikus-entzule gehien dituen hedabidea da, azken kanpainaren goibururekin bat: “zuregatik gara liderrak”.

2. proiektua. Erreferentziako komunikatzaileak sustatzea, egile-kazetaritza jatorra lantzeko profesionaltasuna eta independentzia ezaugarri dituen komunikazio talde publiko baten esparruan.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Komunikatzaileak berri egin dira, audientzia eta gizarte-prestigioa kontuan hartuta, garrantzitsuak baitira informazio-eskaintza ona izateko.

Publizitate- eta sustapen-kanpainak egin dira EITBko profesional/kazetariak erreferentzia bihurtzea bultzatzeko, eta horrekin batera, hedabidearen eta profesional horien ardurapeko programen prestigioa indartzeko.

3. proiektua. EITB.EUS Interneteko informazio-erreferentzia bilakatzea etengabeko informazio eguneratua erabiliz, sare sozialen erabilera aurreratua bultzatuz eta erabiltzaileentzako zerbitzu pertsonalizatuak eskainiz.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: EITB.EUS orri nagusia albiste eta gaurkotasunean arduatutako ereduaren arabera egokitu da eta oso harrera ona izan du Internet bidez edukiak ikusten dituzten ikus-entzuleen artean.

Konbergentziari buruzko proiektuaren bidez, "bimedia" eredu ezarri zaio (telebista gehi Internet), hedabidearen informazio-ekoizpenari.

Albisteak EITB.EUS webgunearen bidez irakurtzea halako hiru hazi da azken lau urteetan. Izan ere, hilabeteko, milioi bat erabiltzaile izaten ditu zerbitzuak.

4. proiektua. Estilo Liburua eguneratzea, Erredakzio Kontseiluaren laguntzaz, gure estiloaren koherentzia lortzeko lanbide-jardunean nahiz informazioaren lanketan, profesionaltasunari eta independentziari eutsiz.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: 2016an, profesionalen, albistegien arduradunen eta Erredakzio Kontseiluaren ordezkarien laguntzaz, Estilo Liburua eguneratzeko lanak amaitu dira.

5.3 IKUS-ENTZULE EUSKALDUNEN KOPURUA IGOTZEA

Norantza-ikuspegi luzea

Oso garrantzitsua da euskal gizartearen hizkuntza-ezaugarrien bilakaerari begiratzea. Bereziki, 45 urtetik beherako biztanleriari dagokionez, gero eta jende gehiagok daki euskaraz.

Ezagutza eta erabileraren arteko aldeak daudenez, gizartean gutxi ezagutzen den errealitate hori ikusten lagunduko du EITBk. Eragile aktiboa izango da euskararen erabilera sustatzen gizarte-esparru guztietan.

EITB funtsezko tresna da euskararen gizarte-prestigioa eta hizkuntzaren erabilera finkatzeko eta, ildo horri jarraikiz, EITB sortzeko Legean jasotako eginkizun nagusia betetzen du. Horrek esan nahi du:

- Euskarazko telebistaren eskaintza osoa lehenetsiko da eta albistegi eta saioentzako aurrekontua handituko da. ETB1ek eskaintza orotarikoa izango du bereizgarri; ETB3k haur eta gazteentzako programa bereziak emango ditu, formatu berriak txertatzeko aukera baztertu gabe.
- Euskarazko irratari dagokionez, Bizkaiko hedadura zabaltzeko beharrezana antzematen da, lurralde historiko horretan baitago hazteko aukerarik handiena. GAZTEAK gazteen entretenimendu eta ozartasunari dagokien komunikazio-erregistroari eutsi behar dio.
- Gaztelania komunikazio-hizkuntza duten euskarriek (ETB2, Radio Euskadi eta Radio Vitoria) lekua egingo diote euskarari modu naturalean eta era pedagogikoan jardungo dute euskararen erabilera sustatzeko. Hala, gizarte eleaniztun baten berezko adierazpidea erraztuko dute. Horrekin guztiarekin bat, euskaldunen presentzia gero eta ohikoago bihurtuko da eta euskararen gizarte-prestigioa indartuko da.
- EITB proaktiboa izango da euskararen erabilera sustatzen sare sozialetan.
- EITB euskarazko multimedia-edukien banatzaile nagusia da Interneten, batetik, *EITB Nahieran* eta EITB.EUS webgunean eskaintzen dituen edukiak kontuan hartuta, eta bestetik, sare sozialetan daukan elkarreragina aintzat hartuta.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

EITBk euskaraz kontsumitzeko ohitura bultzatu nahi du, hizkuntzaren normalizazioan eragitearren.

	Helburua 2014-2016	Emaitzak		
		2014	2015	2016
ETB1, ETB3 eta ETBHD kanaletan metatutako audientzia euskaldunen artean. (Iturria: Sofres).	% 7tik % 10era	% 5,6	% 4,8	% 4,7
Euskadi Irratia, Gaztea eta EITB Musika irrati-tan metatutako audientzia. Entzule kopurua milatan. (Iturria: CIES).	200	219	240	237
Interneteko euskarazko edukietan sartzen diren erabiltzaile bakarrak hilean. Erabiltzaile kopurua milatan (Iturria: OJD).	+% 4 urteko 2012. urtea oinarri har- tuta: 171.000	238	256	247
EITBko ikus-entzunezko kanaletan sortzen diren hautemate-ezaugarri buruzko balorazio kualitatiboa ⁸ :	Gogobete- tasun maila: oso ongi/altua.	8,3 (2013)	8,1 (2014)	8,2
<ul style="list-style-type: none"> ▪ EITBko hedabideetan erabiltzen den euskararekiko batez besteko gogobetetasuna (puntuazioa 0-10). ▪ euskarri eta kanaletako euskararen aurre- rapenari buruz audientziak daukan iri- ziari dagokionez (puntuazioa 0-10). 				

Adierazleen betetze maila ona da, irratiari, Interneteko edukiei eta euskara ba-
 loratzen duten adierazleei dagokienez.

ETB1en bilakaerari dagokionez, Plan Estrategikoak honako hau esan du:
*“ETB1ek bete beharreko helburua ez da batere erraza gauzatzen; izan ere,
 egungo eskaintza goitik behera berrantolatu eta horren gaineko komunikazio-
 plana egiteaz gain, baliabide ekonomiko hornitu behar da etengabe kon-
 sumo-ohitura berri bati eusteko eta ikusle berriak erakartzeko”.*

⁸ (*) Iturria: Gizaker, *gizarte-prestigioaren azterketa*.

Puntu honetan, Txostenaren 4.1.1 puntuan azaldutako aurrekontuaren bilakera aipatu beharra dago: ekonomia-krisiaren eta 2013-2016 bitarteko aldian urte anitzeko programa-kontraturik ezaren ondorioz, aurrekontu-murrizketak egon dira. Hori dela eta, ETBk, eta ondorioz, ETB1ek ere, 2009- 2012 bitarteko aldian baino askoz diru gutxiago jaso du. Jasotako baliabide ekonomikoak ez dira egokiak eta nahikoak izan, ETB1en eskaintza berritzeko/berrantolatzeke, eta dagokion komunikazio- / publizitate-plana egiteko, ikusle berriak erakarri ahal izateko.

Era berean, Txosten honetan dibidendu digitalaren ondorioei buruz esandakoarekin⁹ bat, bersintonizazioen eragin kaltegarria ETB1ek eta ETB3k ere nabaritu dute, batez ere, dialaren antolaketan eta kanal gogokoenak urrutiko agintetan aukeratzeko orduan. ETB3ri dagokionez, aipatu beharra dago estatuko erregulazioak¹⁰ ez duela telebista publikoa babesten, kable bidezko eta/edo ordainpeko plataformen operadoreen esku uzten baitu euren eremuan autonomia-erkidegoko kanal publikoak banatzeko edo ez banatzeko erabakia. EITBk hainbat aldiz eskatu arren, *Movistar+* plataformak bere abonatuak ez die eskaintzen ETB3 kanala.

Proiektu estrategikoen garapena

KONPROMISOA. Egunero-egunero, eduki berriei buruzko eskaintza egitea ETB1en, batik bat, kontsumo-ohiturari heltzeko *day time* programazioan. Bestetik, EITBren ekoizpeneko zerrenda eskaini egunero-egunero ETB3ko haur-audientziari haurrentzako erreferentziako gunea sortzeko helburuz.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Egunero hamar orduz eduki berriak emateko konpromisoa bete egin da. Hala ere, aurretik esandakoarekin bat, baliabide gehiago beharko lirateke ikus-entzuleak eduki berriekin harritzeko eta, epe luzerako, kontsumo-ohiturak finkatzeko eta ikusle berriak erakartzeko, komunikazio-ahalmen handia eta jarraitua duten multimedia-bitartekoak ere erabiliz.

1. proiektua. Jakintza-arlo askotako hobekuntza-taldea eratzea, euskara gaztelaniazko kanaletan pixkanaka-pixkanaka txertatzeko. Horretarako, lan- eta

⁹ Ikus 3 puntua, 3. ataleko “Dibidendu digitalaren garapenaren ondorioak”. Testuinguruko faktore garrantzitsuenak

¹⁰ Telebista publikoek estatuko araudia aldatzea eskatzen dute, *Must Carry/Must Offer* betebeharra barnean dagoela argi egon dadin, plataforma guztiak autonomia erkidegoetako kanal publikoak, lehen zein bigarren mailakoak ahalik eta baldintza onenetan txertatzera behartzeko. Horrela, eskaintza publiko osoa plataforma horien erabiltzaileen eskura jartzea lortu nahi da, herritarrak izateagatik eta zergak ordaintzeagatik eskaintza hori eskuratzeko eskubidea dutelako.

prestakuntza-jardun zehatzak egingo dira eta emaitzak aztertuko dira audientzia sistemetan eta beste adierazle baliagarri batzuetan.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Gaztelaniazko kanaletan pixkanaka-pixkanaka euskara naturaltasunez txertatzeko proiektua legegintzaldian zehar garatu da, honako esparru hauetan: albistegietan, batez ere, Teleberrin, ikus-entzuleek telefono bidez parte hartzeko magazinetan, Boulevard-en eta kulturari buruzko programa berezietan.

Eredua eratzeko, kontzeptua Zuzendaritzak aurkeztutako eta Administrazio Kontseiluak aho batez onetsitako “Programazioaren ildo orokorrak” izenburuko agirian azaldu da.

Komunikazio-hizkuntza gisa gaztelania erabiltzen duten kanaletan euskara erabiltzeko, bi lan-fitxa egin dira. Bigarren fitxa lehenengoaren berrikuspena izan da, ikus-entzuleen iritzia entzun eta jokaera ikusi ondoren eta saiatu-aztertu-doitu ereduari jarraikiz prestatu da. Estilo Liburuko 20. fitxak (“Adierazpenen hizkuntza-tratamendua”) ezartzen du egungo jarrera.

2. proiektua. **Herritar euskaldun eta ia-euskaldunen** parte-hartzea handitzea, euskararen normalizazioa bultzatzen ari diren belaunaldi berrietako kideek hedabideetan protagonismoa eta ikusgarritasuna izan dezaten.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Herritarrei EITBren programetan hainbat bide erabiliz parte hartzeko eskatzen zaie; hala nola ahots-mezuak, posta elektronikoa eta batez ere bat-bateko mezularitzako aplikazioak (*WhatsApp* eta abar) erabil ditzakete.

Komunikazio-hizkuntza gaztelania duten EITBko hedabideetan gero eta ohi-koagoak dira osorik edo zati batean euskaraz dauden eta pantailan edo irrati bidezko emanaldian bere horretan jendeari helarazten zaizkion mezuak.

5.4 KONBERGENTZIAN ERREFERENTZIAKOAK

Norantza-ikuspegi luzea

Konbergentziari buruzko proiektuari heltzeak antolamenduan berrikuntza nabarmena ekarri dio EITBri, aro digitalak, Internetek eta informazio nahiz aisialdiko euskari berriek ezarritako egungo paradigmarekin bat dator lanbide-ereduaren alde.

Telebista edo irratia xede duen enpresa-tradizio luze batetik edukiak era desberdinetan, on line nahiz off line, banatzen dituen kultura batera pasatzeko urratsa ematea lehentasunezkoa eta oso garrantzitsua da.

Euskal gizarteak prozesu eta eredu gero eta eraginkorragoak erabiltzeko eskatzen dio EITBri. Konbergentzia proiektuak taldeak egindako lanaren etekina hobetu eta inpaktu mediatikoa areagotzea du helburu, eskura dauden baliabideak erabiliz.

Garapen profesionala –norberarena zein kolektiboa– lortzeko berebiziko aukera ere bada. Izan ere, multimedia-prestakuntza baliatuz, urratsak eman daitezke, ikus-entzuleekin eta edukietan interesa duten erabiltzaileekin askoz ere harreman estuagoa eta zuzenagoa izateko. Prestakuntza hobea duten lantaldeak diziplina anitzekoak dira, hots, enplegarritasuna eta garapen profesionala ontzeko aukera gehiago eta hobeak dituzte.

Gure ustez, Konbergentziak gogobetetasuna eta emaitzak ekar ditzake, baina erresistentzia guneak kudeatu behar dira, ikuspegi estrategikoa, pragmatismoa eta adostasunak etengabe bilatzea eskatzen duen aldaketa zaila delako.

Lanbide-esparruak gaitasun berriak eskatzen ditu. Hori guztia modu jasangarrian garatu behar da, kostu osagarri esanguratsurik gabe. Halaber, prestakuntzari eta ekintzaitzari atxikitako bideen bitartez, barne ezagutza partekatu eta profesionalen gaikuntza areagotu beharra dago.

Horrek esan nahi du:

- Konbergentzia-proiektua egitasmo estrategikoa da eta legegintzaldi honen barruan diseinatu eta garatu behar da. Gogora dezagun aurreko legegintzaldietan irtenbide teknologikoen plana eta egoitzen plana garatu zirela, horiek biak ere norabide horretan.

- Zuzendaritza taldearen helburua da eta pixkanaka-pixkanaka hedatuko da kudeaketa taldean, koordinatzaileen artean eta lantaldeetan.
- Proiektua garatzeko, jakintza-arlo askotako pertsonen osatutako lantalde eragilea beharko da. Elkarrizketa zabalean eta etengabeko prestakuntzan oinarrituko da, gaitasunen mapa bati jarraiki, baina giltzarria ekimena da. Lor daitezkeen helburuak finkatu behar dira, epe ez luzeegian betetzeko eta lorpenak kateatzen eta metatzen joan behar da apurka-apurka. Adierazleen taulak neurtuko du aurrerakuntzaren maila eta proba-errorearen metodoa oso baliagarria izango da proiektua garatzeko.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

Konbergentziak alderdi kualitatibo nahiz kuantitatiboak ditu eta komunikazio-enpresetan bultzatu behar den errotikako aldaketa kulturalaren ardatz nagusia da. Aldaketa ezinbestekoa da, alde batetik, multimedia oinarri duen etorkizunari aurre egiteko, eta bestetik, edukiak erabiltzeko modu berriei aurrea hartzeko.

Egindako *benchmarking*-ak egiaztatu digu irrati-telebistako enpresetan Konbergentzia ez dela oraindik gauzatu; prentsa idatziko enpresa batzuek esperientzia interesgarri batzuk izan dituzten arren, xehe-xehe aztertu behar dira batzuen zein besteen berezitasunak.

EITBren ikuspuntutik, enpresen artean erreferentea denez, ekintza aitzindari gisa planteatzen da. Bost dira EITBren konbergentziak dituen ardatzak edo erreferentzia-alderdiak: konbergentzia editoriala, antolakuntzaren konbergentzia, konbergentzia teknologikoa, konbergentzia profesionala eta araubidearen konbergentzia.

	Helburua 2014-2016	Emaitzak		
		2014	2015	2016
Konbergentzia editoriala: gure agenda, informazioari buruzko ikuspegi partekatuan oinarrituta.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Ertaina		
Antolakuntzaren konbergentzia: laguntza-, antolaketa- eta ekoizpen-prozesuetan.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Ertaina		
Konbergentzia teknologiko eta fisikoa: informatika bateragarri eta atsegina lanleku partekatuetan.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Altua		
Konbergentzia profesionala eta kazetaritza-arlokoa: lan egiteko sistema estandarizatu berriak.	E / A	Benetako garapen-egoera. 2016: Ertaina		
Araubidearen konbergentzia.	A / OA	Garapena talde pilotuen arabera. 2016: Ertaina		

Garapen-faseak: M – ertaina A – altua OA – oso altua

Konbergentziaren proiektua garatzen duen diziplina anitzeko taldeak aldizkako balorazioak egin ditu garapen maila ebaluatzeko. Emaizak adierazleen taulan jasota daude. Plan Estrategikoari loturiko aldian zehar, behin eta berriz azpimarratu da *ekintzaren* gaia, edukiak sortzen dituzten profesionalen artean, EITBko zein ekoizpen-enpresetako langileen artean, “bimedia” kultura, hau da, telebista+Internet edo irratia+Internet osagarri dituen kultura sortuz. Konbergentzia proiektua EITB.EUS-ek izan duen bilakaera arrakastatsuari lotzen zaio, hain zuzen, Internet bidezko erabiltzaileen kopuruari dagokionez.

Proiektua boluntarioritza bidez garatu da, talde pilotuak osatu ondoren. Oraindik ez da lortu multimedia-inguruneke lanbide taldeen funtzionaltasuna, horren aldekoa izango den erregulazio-esparruan. Aurrerapausoak arlo guztietan eman dira, Konbergentzia diseinatu eta abian jarri baita, garatu diren prestakuntza eta planekin batera. Hala ere, beste bultzada bat behar du, eredia sozietatean mailaka integratzea eta benetan txertatzea lortzeko.

Proiektu estrategikoen garapena

1. proiektua. **Jakintza-arlo askotako talde eragilea eratzea** eta, ikus-entzunezko ekoizpenari dagokionez, multimediako koordinazioa garatzea bost arloetan: editoriala, antolakuntza, teknologia, lanbidearen garapena eta araubidea. Beharrezko gaitasunak identifikatu eta pertsonei prestakuntza ematea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Hasiera-hasieratik, diziplina anitzeko lantalde bat eratu zen, Konbergentziarako transformazio-prozesua garatzeko. Bimedia talde pilotuen arduradunek parte hartu dute, baita hainbat arlotako (hala nola teknologia, giza baliabideak, ildo editoriala, irratiko zein telebistako edukiak eta enkarguzko produktuak) elkartearen arduradunek ere.

Proiektuaren helmena zehaztuta, lan-ildoak ezarri dira, baita horiei lotutako adierazleak ere, proiektuaren garapena monitorizatzeko. Proiektu estrategikoa denez, EITBk eta bertako ekoizpen-enpresek sortutako edukiak maizago ikusteko bidea ematen du. Horrela, dagoeneko ez dira linealak, ez daude on-line bakarrik (eredu konbentzionala), ez-lineala den kontsumorako bideak sortzen baitira, produktua gizarte-sareetan erabiltzea ahalbidetuz. Kazetaritza-ikuspuntutik, lanbidea beste norabide batean garatzeko aukera ematen du, profesionalek ikus-entzule berriekin harremanetan jartzen direlako eta edukiak erabiltzeko bide berriak irekitzen direlako, non *feed-back* edo erantzuna eta gizarte mailan sortzen den elkarrizketa oso garrantzitsuak diren.

Taldea aktibo egon da legegintzaldi osoan, izan ere, hilean behin, proiektuaren jarraipena egiteko bilera antolatu dute, azterketen berri emateko, ekimenak garatzeko, aurrerapena ebaluatzeko eta ekitaldi bakoitzeko erronka berriak ezartzeko.

5.5 TALDE BARNEAN IKUSPEGI KOMUNA LANTZEA ("Gu")

Norantza-ikuspegi luzea

Plan Estrategikoa proiektu osoa da, EITBren eginkizuna eta balioak –taldearen bereizgarri diren balioak barne– jasotzen dituena eta komunikabideen ingurune berria, ikus-entzunezko edukiak erabiltzeko modu berriak, baita ekonomia-krisiak eragindako testuingurua ere aintzat hartzen dituena.

EITBekin zerikusia duten guztiekin partekatzen den proiektua izan behar du eta zuzendaritza taldeak bere gain hartuko du, proiektua garatzeko eta horren buru izateko.

Horrek esan nahi du:

- Hitz egiteko eta elkarrizketan jarduteko konpromisoa hartzen dugu, zuzendaritza taldeari eta langile guztiei azaltzeko komunikazio-taldeen etorkizuneko baldintzak oso desberdinak izango direla eta aukera berriak sortuko direla. Horiek guztiak negoziatu nahi ditugula langileen legezko ordezkariekin. Orainaldia eta iragan hurbila ez dira erreferentzia baliagarriak. Garai horietan bietan informazio zabala eta eskarmentu handia dago, baina aldaketaren iturria etorkizunean kokatu behar dugu.
- Komunikazio-taldeak aurreko antolaketa-ereduak bazter uzten ari dira eta eredu berriak sortzen ari dira, bilaketa eta egokitzapenez jositako aldi neketsu honen ondoko egoeran oreka eta egonkortasuna etorriko direla dakitelako.
- Barneko *erregulazio-esparrua* berriz pentsatu eta negoziatu beharra dago, lan-eskubideak, laneko eta familiako bizitza uztartzea, lanaldiaren iraupena eta gizarte-prestazioak aintzat hartuta, prestakuntza eta lanbide-gaitasunak multimedia-ingurunera egokitzen diren bitartean, antolaketa hobetzeari begira; hori guztia, enpresa prest egon dadin egungo zein etorkizuneko erronka berriei modu iraunkor batean aurre egiteko.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

Zuzendaritzak iraunkortasuna eta efizientzia prozesu guztietan bermatu nahi ditu. Halaber, edukien eskaintza lehiakorra eta kalitate onekoa sortu nahi du, gizarteak esleitutako zerbitzu publikoaren egitekoa betetzen duena.

	Helburuak	Emaitzak		
	2014-2016	2014	2015	2016
Antolaketa profesionala modernizatzea eta lantaldeak eratzea EITB Taldearen multimedia-prozesuei ekiteko. Horretarako, erakundeak berak eskainiko du prestakuntza, gaikuntza profesionala bideratzeko.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Ertaina		
Jarduera profesionala lanbide taldeen arabera antolatzea. Horretarako, erakundeak berak eskainiko du prestakuntza gaikuntza profesionala bideratzeko.	A / OA	Diseinatu da, lanbide taldeen eredu negoziatu behar da. 2016: Ertaina		
Antolaketaren baldintzak benetako beharizan funtzioaletara egokitzea.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Altua		
Lanbide berriei bidea ematea teknologiaren eta gaitasun profesionalen etengabeko bilakaera aintzat hartuta.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Altua		
Barruko komunikazio-politikak sustatzea, komunikazio-plan baten bitartez.	A / OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Ertaina		
Murrizketa esanguratsua egitea organigraman eta zuzendaritza eredu arautzea HKEEren gomendioei jarraiki.	OA	Benetako garapen-egoera. 2016: Oso altua		

Garapen-faseak: M – ertaina A – altua OA – oso altua

Proiektu estrategikoen garapena

1. proiektua. Barne komunikazioa hobetzeko lantaldea eratzea, legegintzaldiaren barruan, urteko komunikazio-planak ezartzeko, eta horrela, langileen arteko elkarrikerria errazteko, EITBren proiektua partekatu eta eztabaidatzeko asmoz.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Barne-komunikazioa kudeatu da, estrategiaren ikuspuntutik garrantzitsuenak diren arloetan:

- zerbitzu publikoari loturiko edukien eskaintzari dagokionez, audientzia eta gizarte-prestigioa lortzeko xedez
- informazioa eta gaurkotasuna lehenestea
- diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka eta kostuen murrizketa berraztertuta eta aplikatzeko beharra
- langile kopurua erregulatzea eta lan giroaz arduratzea.

Hobekuntza taldeak komunikazio-plana landu zuen, zuzendaritza-taldearen zein langile guztien ikuspegia aintzat hartuta.

2. proiektua. Hitzarmen kolektibo berriak negoziatu eta onartzea, epe ertain eta luzean berezko antolaketa-esparru jasangarria eta egokia bermatzeko. EITBk arauzko eredu berriz pentsatu behar du honela aritzeko: enpresa aurreratu gisa, etorkizunean jarduteko prest dagoena eta kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzen duena, euskal gizartearentzat onargarria den arrazoizko kostua eraginda.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: 2013. urtearen bukaeran, hitzarmen kolektiboek mugarik gabe jarraituko zutela erabaki zen. Era berean, lan-baldintzen eta gizarte-onuren jarraipena bermatu zen, horien epemuga ondorioz gabe utzita (aurreraeragina).

Aurrekontu- eta lan-legediaren eragina izan da legegintzaldiaren bereizgarri, 2010eko soldata-murrizketak Konstituzioaren aurkakoak izan direla deklaratu, aurrekontua txikiagotu, behin-behineko kontratazioa murriztu eta enplegua erregulatu delako.

Enplegu-deialdi publikoko prozesuak eta enplegua erregulatzeko espedientea epaitegietara eraman ondoren, enpresaren aldeko epai irmoak eman dira.

2015ean, EITBNETen lehen hitzarmen kolektiboa onartu da.

3. proiektua. Prestakuntza-politika eta lantaldeak nahiz pertsonak aintzatesten dituen politika garatzea, oraingo erronketan eta etorkizunekoetan langile trebatuak izateko.

GARAPENA ETA BALORAZIOA:

Proiektu horren esparruan 3 ekintza-ildo garatu dira: i) ezagutza teknikoak eta langileak kudeatzeko gaitasuna garatzea; ii) enpresa barruan lanbide-aurrerakuntza bultzatzea, zuzendaritzako, burutzako eta gainerako ardura-karguetara iristeko aukera emanez; eta iii) langileekin komunikatzeko eta haiek parte hartzeko politikak eta ekimenak abian jartzea, *“EITB enpresaren parte direla sentiarazteko”* eta enpresako proiektua, balioak eta helburuak guztien artean kudeatzeko.

4. proiektua. Zuzendaritza taldearen dimentsioa beste modu batean zehaztea neurriak hartu behar direnean zuzendaritzan bertan egon behar den koherentzia aintzat izanik, zuzendaritza-kudeaketan efizientzia lortzeko eta Herri

Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenetan jasotako gomendio nagusien normalizatibazioari heltzeko. Administrazio Kontseiluaren babesa behar du.

GARAPENA ETA BALORAZIOA:

Legegintzaldiaren lehenengo aldian, Zuzendaritzak Administrazio Kontseiluari zuzendaritza-langilearen definizioa aurkeztu zion, berak onar zezan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ekarpen tekniko eta juridikoei jarraikiz.

Era berean, zuzendaritza-kudeaketaren sistemari buruzko irizpen juridikoarekin bat, askoz kargu gutxiago zituen organigrama berri bat egin zen. Goi-zuzendaritza eta zuzendarien nahiz zuzendariordeen kopurua % 32 murriztu zen (2012. urtearen alde). Organigrama osoaren dimentsioa, lehenago aipatutako zuzendaritzak barne, % 41 murriztu zen. Aurreko organigraman 129 kargu agertzen ziren; orainoan, berriaz, gehienez ere 75 kargu egon daitezke.

Izendapen libre guztiak Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar zaizkio, izangaiak profesionaltasun-irizpideetako zeintzuk betetzen dituen azalduz. Izendapen libreko karguaren izaera Zuzendaritza Orokorren agintaldiari dago lotuta, berak izendatu edo izendapena berresten duelako.

5.6 IKUS-ENTZUNEZKO SEKTORE PRIBATUAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA ("Gu + Beste Gu").

Norantza-ikuspegi luzea

EITB enpresa bultzatzailea izan da euskal ikus-entzunezko sektorean. Hasieran, 2003az geroztik, ikus-entzunezko industriaren sortzailea izan da, EIKEN (Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra) eratzea bultzatu baitzuen, sektorearen garapen antolatua eta industria sare lehiakorra, erabakiguneak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen sortzea ahalbidetzeko, formatu eta produkzio merkatuari begira.

Funtsezko industria da multimedia-narrazioaren eta obrak sortzearen ikuspuntutik. Oso garrantzitsua da fikzioa, zinema eta entretenimendu-edukiak sortzeko, talentu artistikoa eta norberaren obra sustatuz. Ikus-entzunezko ondarea, euskal gizartearen kontakizunak eta ikus-entzunezko memoria sortzen laguntzen duena.

EITBren iritziz, albistegiak eta gaurkotasunari buruzko edukiak sortzea barne jarduera da. Gaurkotasunari buruzko edukien zati bat, baita gainerako genero batzuetako edukien zatia ere, ikus-entzunezko sektoreko industriari enkargatzen zaio. Horren haritik, EITBrentzat, edukiak sortzea sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren aliantza da, "GU" (EITB) eta "BESTE GU" (Euskal Ikus-entzunezko Sektorea), alegia. Eredua erabilgarria da telebista, irrati zein new media delakoaren kasuan.

Era berean, EITBk hitzarmenak sinatu nahi ditu euskarazko gainerako komunikabideekin, eskaintzaren aniztasuna sendotu eta eragileen arteko elkarlana areagotzeko.

Horrek esan nahi du:

- Entrenimendu eta dibulgazioko edukiak erosteko erabiltzen den EITBren finantzaketa publikoaren zatia komunitatearen onurarako izaten da, euskal ikus-entzunezko industria dinamizatzeko inbertsioa delako eta, indarrean dagoen legeria betez, batez ere, tokiko enpresek jasotzen dutelako. Hortaz, herrialdean inbertitzen duenez, EITB euskal industriaren eta bertako enpresen sustapen ekonomikoa egiteko eragilea da.
- Barruko ekoizpenaren (barrualdean edo *in house* ekoizita) aldeko apustua areagotu egin da eta enkarguzko ekoizpenen bolumena handitu da ikus-entzunezko sektore pribatuko ekoiztetxeetan. Aurrekoaren ondorioz,

erakundeak inbertsioa murriztu du nazioarteko eskubideen eta kanpoko ekoizpenen erosketari dagokionez.

- Irratian erabiltzeko dibulgazio eta/edo entretenimenduko ekoizpenetan inbertitzeko aukera aztertzen ari da.
- Aurrekontuaren % 6 zineman inbertitu behar delako legezko eskakizuna betetzen da, bai eta euskal eta europar ikus-entzunezko lanen zabalkundeari lotutako eskakizunak ere.
- EITBk EIKENekin elkarlanean arituko da, sektore-estrategiari loturiko konpromisoak direla eta.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

EITBk jarduera ekonomikoa sortzean parte hartuko du, hurrengo programa-kontratuan ezarritako ereduaren arabera.

Nolanahi ere, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

	Helburuak 2014-2016	Emaitzak		
		2014	2015	2016
telebista- eta irrati-kanaletako edukien kontratazioaren %, euskal ikus-entzunezko sektoreko enpre-setan / egoitza EAEn duten enpre-setan.	Betearazteko prozedura estandarra erabili	% 87,5	% 88,6	% 87,9
Aurrekontuaren % 6 zinema diruz laguntzeko eta ikus-entzunezko ekoizpen pribatua laguntzeko eskakizuna betetzea (ekarpenak milioi eurotan).		4.174	4.652	4.557
Euskal Herriko eta Europako ikus-entzunezko lanei laguntzeko indarreko legeria betetzea. Europako ekoizle independenteen lanak (orduak eta emanaldien ehunekoa).		18.407 % 65,6	24.647 % 73,4	24.457 % 79,0

Sektoreak nazioarteko merkatura eraman nahi dituen formatuen proiektu pilotuak garatzen eta zabaltzen laguntzea, EIKENen laguntzaz.		Grupetto ¹¹ Pagoberri news ¹²	Totem ¹³	Next Station ¹⁴
Ikus-entzunezko sektoreko kideen ekimeneren bideragarritasuna aztertzea eta aintzat hartzea, sektorearen hazkundea errazteko erakundearen babesa agertu, talentuak saritu, erosketak hobetu eta antzekoetan.	Lankidetzaprozedura izatea	<ul style="list-style-type: none"> • EITB EIKENen Zuzendaritza Batzordearen kide; ordainketa-konpromisoak bete dira. • ETBko zuzendariak EIKEN INNOVA eta EIKEN TALENTEko epaimahaietan parte hartzen dute. Ekoiztea eta ematea ahalbidetzen dute. • Aldian-aldean, bilera orokorrak antolatzen dira, edukien premiak aurkezteko, eta ondoren, proiektuen <i>pitching</i>-a burutzeko. • EITBko instalazioak eta logistika-zerbitzua ikus-entzunezko sektorearen esku uzten dira. 		

OHARRA: Euskal ikus-entzunezkoen sektorearekin lotura estua duten konpromisoak honako ildo estrategiko hauetan ere hartu dira: 1 - *zerbitzu publikoa*, 2 - *informazioan eta gaurkotasan-gaietan liderra izatea*, 3 - *ikus-entzule euskaldun gehiago erakartzea* eta 4 - *konbergentzia garatzea*.

Proiektu estrategikoen garapena

1. proiektua. Sektorearekin batera, **lankidetzareduari** buruzko proposamenak aztertzea, edukien eskaintzaren diseinuan ere parte hartu ahal izateko.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Urtean zehar, ETBren datu-basean erregistratu diren ekoizpen-enpresa guztiei zuzendutako hainbat deialdi egiten dira, programazioaren beharrak (tarte, formatu eta edukien aldetik) jakinarazteko.

Proposamenak jaso ondoren, guztiak aztertzea eta batzuk aukeratu egiten dira, beharretara egokitzen direla egiaztatzeke, eta, hala badagokio, jardunaldi berezietan (*pitching*) aurkezteko aukera ematen da.

Proposamenak aztertzea ondoren, programa-batzordeari dagokio proiektuak lantzen jarraitzea, kontratazioak egitea eta produkzioa burutzea.

Sistema horrek ez du baztertzen ETBrako programa-proposamenak egiten dituzten sormen taldeen proiektuak hartu eta aztertzea.

2. proiektua. Nazioarteko merkatuan erabil daitezkeen proiektuak **ekoitzi eta erakusteko bidea erraztea ikus-entzunezko sektoreari.**

¹¹ Eiken innova 2014: programa irabazlea "Grupetto" 4x30'. Campusdeportivovirtual SL-en eskutik.

¹² Eiken Talent 2014: programa irabazlea "Pagoberri News". Irusoin enpresaren laguntzaz.

¹³ Eiken Talent 2015: programa irabazlea "Totem". Mediatag crossmedia enpresaren laguntzaz.

¹⁴ 2016/2017 ekitaldian garatzeko plana.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: EIKEN ikus-entzunezkoen klusterrak kudeatzen dituen eskaerak aztertzen dira, euskal ekoizpen-enpresek sortutako formatuak nazioartekotzea bultzatzeko irizpideen arabera.

3. proiektua. Euskarazko komunikabideekin batera lankidetz-egitasmoak garatzea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: TOKIKOM elkartarekin eta euskarazko operadore batzuekin (zuzenean) lankidetz-hitzarmenak sinatu dira, edukiak eta bikoizketak elkarri emateko, ikus-entzunezko eskubideak kideen artean eskuratzeko edo ikus-entzunezko produkzioan elkarlanean aritzeko.

5.7 EFIZIENTEAK KUDEAKETA TEKNOLOGIKOAN

Norantza-ikuspegi luzea

Efizientzia teknologikoaren eredu baten pean eta euskarri- eta mantentze-zerbitzu egoki batekin, ikus-entzunezkoen ekoizpen-ekipamenduak gutxien-gutxienik hamabost urtean behin berritu behar dira eta IT ekipamenduan oinarritutako plataformak zazpi urtean behin.

Azken ekitaldietako aurrekontu-murrizketek ez dute erraztu ordezkapenak betetzea eta inbertsio berriak. Izan ere, urteko lau milioi euro inguru eskatzen du Inbertsio Planak. Beraz, programa-kontratuaren etorkizuneko markoan, Berrikuntza Estrategikoen Plangintzan jasotako egokitzapen teknologikorako behar adinako aurrekontu-zuzkidura behar da, azken hiru urteotako geldialdiari aurre egiteko.

Horrek esan nahi du:

- Plataforma nagusietan edukien presentzia bermatu behar dela:
 - EITB Nahieran (erabiltzaileak nahi dituen edukiak hauta ditzake). Eskaintza zabala, katalogazio egokia, erabiltzaileentzako esperientzia atsegina eta memoria-gaitasun handia.
 - HbbTV. Telebista hibridorako europar estandar berrira egokitzea, LTD/Kable/Satelite/Internet bidezko edukiak eskuratu ahal izateko.
 - TB Konektatua (Smart TV). ETBko edukiak fabrikatzailerik garrantzitsuenen estandarretara egokitzea.
 - Tabletak eta gailu mugikorrak. Merkatuan nagusi diren sistema eragiletarako App-en garapenak egokitzea eta horiei eustea: iOX (Apple) eta Android (Google) eta garrantzitsuak diren gainerakoak ere.
 - 2. pantaila. Gailu mugikorren bidezko elkarreraginari begira.
- Plataformen konbergentzia osoa garatzea telebista, irrati eta Interneteko edukiak ekoitzi ahal izateko.
- Estudio eta kontrolen ekipamendua berritzeko orduan, horiek egokitzea HDko ekoizpenari begira.
- EITB Taldearen albistegi eta emanaldien jarraitutasuna bermatzea gertakizun larriak izaten direnean.
- Digitalizazio-prozesua osatzea EITBren artxibo fondoari eusteko, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen ondorea den heinean.
- Kudeaketa sistemak *Business Intelligence*-ko erreferentzia-ereduetara egokitzea.

- Energia-kontsumoa era eraginkorrean kudeatzea eta ingurumen-politika aurreratua aplikatzea.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

EITBk inbertsio-politikari ekingo dio berriro eta konpromiso hauek hartuko ditu:

	Helburuak 2013-2016	Emaitzak		
		2014	2015	2016
EITBren berritze estrategikoen plangintza garatzea.	Posizionamendu egokia berreskuratzea	Aurrekontuan izandako murrizketak direla medio, berritze-planean ezarritako inbertsi-oak lehenetsi behar izan dira. Betearazpen nabarmenak honako hauek izan dira: <ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko ekoizpenen HD loturak berritzea • Intercom Miramon • 22 HD Miramon estudioa • Zerbitzaria eta postprodukzioa HD Miramon • Kommutrazio-matrize eta kontrola ELIKA Miramon • LDT HD simulcast difusio-burua berritzea • Jarraitutasunak eta Branding HD ETB1 eta ETB2 berritzea 		
Hondamendi larririk egonez gero, jardura berreskuratzeko kontingentzia-plangintza garatzea.	Epea amaitu aurretik garrantua	Kontingentzia-planak behar bezala egikaritzea.		
EITBren ikus-entzunezkoen artxiboa babesteko kontingentzia-plana.		Ikus-entzunezkoen artxibo orokorraren (Bilbo) kopia klonatua ezartzea, Miramongo zentroan babeskopia gordeta.		
EITBren ikus-entzunezkoen artxiboa digitalizatzea.	Urte anitzeko plana	Ikus-entzunezkoen artxiboaren digitalizazioa aurreratuta. 2017an amaituko da.		

<p>Sistemak diseinatzea eta garatzea ekoizteko, edukiak argitaratzeko eta prozesuak automatizatzeko plataformen konbergentziari begira.</p>	<p>Konbergentzia-proiektuari egokitua</p>	<p>Konbergentzia teknologikoan garapen “altua”:</p> <ul style="list-style-type: none"> Hiru hedabideetako edukiak (irratia, telebista eta Internet) argitaratzeko plataformen arteko integrazioa kontsolidatzea. (Edukiak partekatzea) Erabiltzaileek edukiak argitaratzeko baliatuko dituzten tresna gehigarriak garatzea / ETB TB-EITB.eus eta E.I.-EITB.eus konbergentziak
<p>Egoitzen egokitzapena (energia eta prebentzio-sistemak).</p>	<p>Aplikatzekoa den arautegien arabera</p>	<p>Energia aurrezteak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kontrol zentralizatua (aribidean) Kontsumo gutxiako argiak <p>Berritzea eta klimatizazioaren arauetara egokitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> Klimatizazio estalkia berritzea, instalazio teknikoak, Miramon <p>Prebentzio-sistema egoitza guztietan garatu da, Miramongo Produktzio Zentroan egikaritze batzuk osatu behar diren arren:</p> <ul style="list-style-type: none"> Miramongo zentroa CPI araudiaren arabera egokitzea (egiten ari da) Larrialdien arloa berritzea Keak detektatzea eta ateratzea, Boulevard eta Bilboko garajeak

Proiektu estrategikoen garapena

1. proiektua. Zenbait urtetarako programa-kontratu berrian ezarri beharreko finantza-zuzkiduran oinarritzen den inbertsio-plana garatzea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Programa Kontratua 2016-2020 aldirakoa da eta dagokion aurrekontu-plangintzak hazkundeak ezarri ditu, 2017tik aurrera.

2013 eta 2016 bitarteko aldian, guztira 4,2 milioi euroko zuzkidura jaso du, aurreikusitako beharrak baino askoz gutxiago. Izan ere, Inbertsio Planaren arabera, urte bakoitzean 4 milioi euro jaso beharko luke.

Inbertsio Plana berraztertu ondoren, baliabideak hobeto erabiltzeko egokitu egin dira inbertsioak eta lehentasunak ezarri dira, ekitaldi bakoitzari dagokion aurrekontu-esparrua kontuan hartuta.

5.8 ENPRESA-JASANGARRITASUNAREKIN KONPROMETITUAK

Horantza

EITB baliabide publikoen bidez finantzatzen da. Atzerapen ekonomikoko egoeran kezka nagusienetako bat baliabideen xedea eta erabilera egokiena zehaztea da.

EITB sortzeko Legean jasota dago EITBren eginkizuna. Ekonomia-krisi larriko egoeran, funtsezkoa da lehentasun argiak zehaztea eta antolamenduaren zein aurrekontuaren alderdiak optimizatzea, taldearen garapena iraunkorra izan dadin. Plan Estrategikoari buruzko eztabaidan parte hartu duten askoren iritziz, krisialdia aldaketak egiteko eta bultzada lortzeko aukera da.

Horrek esan nahi du:

- EITBren antolakuntza berrikusi behar dela, antolakuntza eredu efikaza (egoki funtzionatuko duena), efizientea (egoki funtzionatuko duena neurriko kostu batez) eta iraunkorra (sektore publikoak epe ertain eta luzean izango duen finantzazio gaitasuna kontuan hartuz) lortze aldera.
- Programa Kontratu berria adostu behar dela, urte anitzekoa, programazio- eta inbertsio-politikak garatzeko. Ekitaldi bakoitzean edukiak lantzeko diru kantitate nahikoa bermatzea, baliabideak izateko.
- Baliabideak optimizatu behar direla, alde batetik, sarrera propioak hobetuz eta, horretarako, EITBren egoera erlatiboa sektorearen batez bestekoaren gainetik egotea lortuz; bestaldetik, eremu guztietan nahitaezkoak ez diren gastuak murriztu eta ondasunak nahiz zerbitzuak eskuratzeko prezioak hobetu egingo dira.
- Kudeaketa arduratsua bermatuko dela: izan ere, zerbitzu publikoaren egitekoa bete, ekitaldi bakoitzean diru-sarreraren eta gastuen arteko finantza-oreka lortu eta epe luzeko iraunkortasunari eutsi egingo zaio.
- Gobernu korporatibo eta gizarte erantzukizuneko ereduak garatuko duela (ingurumenaren iraunkortasuna, berdintasun-planak, euskara-plana, familia eta lana uztartzea, prebentzio-planak eta abar), erreferentziarik aurreratuenekin bat etorritik. Kudeaketa- eta fabrikazio-prozesuei begira, kalitate-sistemak ere garatuko dituela.

2013-2016 BITARTEKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan ezarritako adierazleak

Iraunkortasunari lotutako adierazleak “emaitza giltzarriekin” parekagarriak dira eta EITBko akzionistari (Eusko Jaurlaritza) eta Legebiltzarrari (funtzionamendua eta emaitzak kontrolatzeko azkeneko instantzia) interesatzen zaizkie bereziki.

	Helburuak 2013-2016	Emaitzak		
		2014	2015	2016
Zerbitzu publikoaren prestazioaren gainean hartutako konpromisoen betetze-maila. Programa-kontratuaren jarraipen batzordearen balorazioa.	Ona, ebaluazioa urtero egin behar da	Bete da, salbuespenik gabe.		
Gardentasun-betebeharrak konplitzea Administrazioarentzako <i>reporting</i> -ean, Eusko Legebiltzarrereko agerraldi eta erantzunetan, Administrazio Kontseiluan eta web korporatiboan.	Indarrean dagoen legedia betetzea (gaia, epeak, formaltasuna)	Bete da, salbuespenik gabe.		
Kontuei, kudeaketari eta legezketasunaren betetze-mailari buruzko urteko ikuskapenak.	Segurtasun eta fidagarritasuna	Kontu-ikuskaritzaren txostenetan ez da jaso inguruabar garrantzitsurik edo salbuespenik, enpresa-kudeaketari eta emaitzei dagokienez.		
Sarreraren eta gastuen arteko finantza-oreka EITB Taldearen kontsolidatuan.	0 defizita	EITBk defizit eta banku-zorrik gabe amaitu ditu ekitaldiak.		

Proiektu estrategikoen garapena

1. proiektua. Zenbait urtetarako programa-kontratu berria prestatzea, zerbitzu publikoa eta enpresaren finantzazioa eta neurria ezartzeko eta zehazteko.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: EITBk 2016-2019 aldirako Programa Kontratua du. Administrazio Kontseiluari eta EITBren Kontrolerako Batzordeari aurkeztu ondoren, Eusko Jaurlaritzak onetsi egin zuen. 2016ko otsailaren 24an sinatu zen.

(Txostenaren 3. atalean, Testuinguru-faktore garrantzitsuenak, 1. puntuazaltzen da atzerapenaren arrazoa).

2. proiektua. Plan Estrategikoa garatzea agirian ezarritako proiektu eta adierazleen jarraipena eginez. Plan Estrategikoa urteko kudeaketa-planekin bat etortzea.

GARAPENA ETA BALORAZIOA: Proiektu estrategikoak abiarazi dira, baita horien garapenaren aldizkako jarraipena ere. 2015eko maiatzaren 26ko Administrazio Kontseiluan, garapen maila aurkeztu zen. Ebaluazio-txosten honekin itxi egiten da prozesua, legegintzaldia amaitzearekin batera.



memoria de evaluación

plan estratégico 2013-2016

Consejo de Administración 28-11-2017

Contenido

1. Introducción	3
2. Resumen del Plan Estratégico 2013-2016	5
2.1 EITB, servicio público	5
2.2 Las 8 líneas estratégicas	7
2.3 Misión, Visión y Valores.	9
3. Principales factores de contexto	10
4. Balance y grado de cumplimiento	15
4.1 Cumplimiento del marco presupuestario	15
4.2 Cumplimiento del 70% de objetivos en las ocho líneas del Plan Estratégico	19
5. Resultados en el desarrollo de las 8 líneas estratégicas	21
5.1 Modelo de Servicio Público	21
5.2 Líderes en Información y actualidad	26
5.3 Reforzar la audiencia en euskera	30
5.4 Referentes en convergencia	34
5.5 Articular una visión compartida interna (“Gu”)	37
5.6 Cooperar con el sector audiovisual privado (“Gu + Beste Gu”)	41
5.7 Eficientes en la gestión tecnológica	45
5.8 Comprometidos con la sostenibilidad empresarial	48

1. Introducción

Más de doscientas personas participaron en el proceso de reflexión estratégica que facilitó la elaboración del Plan Estratégico de EITB 2013-2016: profesionales de EITB y externas personas de distinta procedencia para recoger las prioridades de los Stakeholders de la sociedad vasca.

Con la *hoja de ruta* que establece un Plan Estratégico, todo equipo directivo acomete un proyecto que se gestiona atendiendo a la visión fijada y a cuantas circunstancias se deben asumir y gestionar en el período del proyecto.

Este documento cierra el Plan Estratégico 2013-2016 dando cuenta de las realizaciones.

El principal factor que ha condicionado la gestión ha sido que el acuerdo del Contrato Programa 2016-2019 se ha formalizado al final de ciclo. La dureza de la crisis y los requerimientos de reducción del déficit que se le han exigido a las instituciones vascas han impedido disponer, como hubiera sido necesario y deseable, de una suficiencia presupuestaria, de carácter plurianual, para el período 2013/2016, dando continuidad los Contratos Programas precedentes.

En 2012 y todavía más en 2013 se han realizado ajustes económicos que condicionan los ejercicios siguientes. La situación económica queda reflejada en la tercera parte, de *Balance y cuadro de cumplimiento*. El propio Plan Estratégico establecía en 2013 que le debía *acompañar* un nuevo Contrato Programa para asegurar la financiación y la prestación del Servicio Público.

La dirección de EITB ha planteado, en la que ha sido la legislatura de mayores dificultades económicas, que debía priorizar ante todo la sostenibilidad y el futuro del grupo de comunicación, adoptando las decisiones necesarias para mantener saneada la empresa.

Adoptó también gestionar los contenidos reequilibrando los soportes de televisión, radio e Internet con miras a un futuro de carácter multimedia que integre todas las sociedades. Fue una decisión importante dotar de más recursos a los servicios informativos con un resultado francamente satisfactorio ya que se logró el liderazgo informativo y se ha mantenido EITB como grupo de comunicación referente.

El horizonte de EITB actualmente tiene, a diferencia de 2013, más y mejores oportunidades. El Contrato Programa 2016-2019 permite abordar proyectos que anteriormente estaban fuera de sus posibilidades.

